


Pazienteen Segurtasuna Seguridad de Pacientes



Pazientearen Segurtasunaren Munduko Eguna 2024

Leloa: “Diagnosticiko zuzenak, paziente seguruak”

Diagnosticoa pazienteak eta osasun-taldeak parte hartzen duten prozesua da, eta, horren bidez, pazientearen arazoa zein den jakin dezakegu. Diagnosticoko berantiar edo desegoki batek, edo diagnostikorik ezak, gaixotasuna luza dezake eta, batzuetan, desgaitasuna edo heriotza ere eragin.

Irailaren 17an ospatutako Pazientearen Segurtasunaren Munduko Eguna dela eta, Osasun Ministerioak jardunaldi bat antolatu du Pazientearen Segurtasunaren Estrategiaren esparruan.

Aurten, pazientearen segurtasunerako diagnosticoa hobetzeari buruzkoa da gaia. Horretarako, irudi bidezko diagnosticokoaren segurtasunaren ikuspegitik ekin zitzaien, eta autonomia-erkidegoetako laborategi-eremuetako proiektu zehatzak azaldu ziren (analisi klinikoak, anatomia patologikoa, mikrobiologia eta genetika).

Parte hartzeko eta hausnartzeko bi mahai antolatu ziren:

1. mahaia irudi bidezko diagnosticokoaren segurtasunean ardaztuta egon zen, eta Babes Erradiologikoko Espainiako Elkarteko (SEPR), Fisika Medikoko Elkarteko (SEFM), Erradiologia Medikoko Espainiako Elkarteko (SERAM) eta Medikuntza Nuklearreko eta Irudi Molekularreko Espainiako Elkarteko (SEMNUM) zuzendariek ordezkatu zuten.

2. mahaia, laborategiko diagnosticoko praktika seguruetan bideratua, bertan lehen aipatutako 4 laborategi-eremuak ordezkaturik egon ziren.

Diagnosticoa hobetzeko bi tailer ere egin dira, bai Lehen Mailako Arretan, bai Ospitaleko Arretan.

Dagoeneko eskuragarri dago bideoa Ministerioaren webgunean. Eskura daude, halaber, ideia gakoak edo gomendioak jasotzeko kontsulta daitezkeen hamabi aurkezpenak (1. mahaiko 4, 2. mahaiko 4, 1. tailerreko 2 eta 2. tailerreko 2).



Jardunaldiaren bideorako esteka:

<https://seguridaddelpaciente.sanidad.gob.es/informacion/eventos/jornadas/2024/DiaMundialSeguridadPaciente2024.htm>



Osakidetza

ARABAKO
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
ARABA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD